

Animalien Ongizatearen II Kongresuko aurkezpenak

Espainiako Albaitarien Elkarteak (OCV) Animalien Ongizateari buruzko II. Kongresuko hitzaldiak argitaratu ditu. Kongresua azaroan antolatu zen Zaragozan.

Animalien babesa, bai hornidura-animaliarena eta bai laguntza-animaliarena, **geroz eta kezka gehiago eragiten duen gaia da, gizartean zein albaitarien artean.** Prozesu hori abere-ustiategietako animalien hazkuntza-baldintzetan hasi eta animalien garraio eta hilketan amaitzen da. Etapa horiek araututa daude Europa-mailan, nazio-mailan eta eskualde-mailan. **Gainera animalia-espeziearen araberako baldintzak daude, baita esperimentazio-animaliarentzat, zientziarako erabiltzen diren animaliarentzat eta lan- eta laguntza-animaliarentzat ere.**

Hori dela eta, espezializazioa eta **ikerketa-maila geroz eta handiagoak dira, eta, horrekin batera, ezagutza, araudiak eta kontrol ofiziala.**

Beraz, aipatutako kongresuan gai horiek jorratu zituzten profesionalak hartu zuten parte. Aurkezpenak [erakundearen webgunean](#) kontsulta daitezke. Aurkezpen teknikoak eta kasu praktikoak landu ziren, baita gaiaren inguruko hausnarketak eta etorkizuneko ikuspegia ere.

Hona hemen konferentzia batzuk:

- **Esperimentazio-animalien eutanasia**
- **Oilo-eruleen** ongizatea
- **Arrain-hazkuntza:** hilketa